# Torres kontseilariak Sanferminetako zazpigarren entzierroko osasun laguntzarako antolaketan parte hartu du

*Bertatik jarraitu du lasterketa, eta Merkatari kaleko tartean ubeldurak egin dituzten bi lagun artatu ditu bolondres gisa*

Miércoles, 13 de julio de 2011




Torres kontseilaria Gurutze Gorriko medikuen postuan, Merkatari kalean

Elena Torres Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariak entzierrorako antolatzen den osasun dispositiboan parte hartu du gaur, Merkatari kalean jarri duten Gurutze Gorriko medikuen postutik.

Torresek bertatik jarraitu du karrera. Karreran parte hartu duten zazpi zauritu Nafarroako Ospitale Gunera eraman dituzte (ez dira izan adarkadak), eta kontseilariak, borondatez, tarte horretan ubeldurak egin dituzten bi lagun artatu ditu.

Entzierroa amaitu denean, kontseilariak osasun laguntza emateko dispositiboa osatzen duten bolondresei eskerrak eman dizkie egiten duten lanagatik, eta haien lanean jarraitzera bultzatu ditu.